



HEZKUNTZARI buruzko teoriak eta erakunde garaikideak

Irene López-Goñi (koord.). – Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa = Universidad Pública de Navarra, 2003. – 569 or. ; 24 cm. – ISBN: 84-9769-011-7

Eskuartean dugun liburua egun indarrean dagoen ikasketa plangintzako pedagogia alorreko unibertsitate-ikasketak egin nahi dituen –eta, batipat, “Hezkuntzaren teoriak eta erakunde garaikideak” izenburua duen ikastaroa burutuko duen– ikasleari begira egina da. Bereziki irakasle izango den ikasleari zuzenduta dago egina. Sarrera izaera duen eskuliburua da eta gida, oinarritzko dokumentu izatea du helburu, hots, ikasleari pedagogiarekiko lehen hurbilpena argiro, erraz eta ahalik eta zehaztasun akademiko handinez eskaintzea.

Pedagogiaren eta hezkuntzaren munduan hasten ari diren pertsonentzat hezkuntzaren inguruan funtsezkoak diren edukiak *Teorías e Instituciones contemporáneas de la educación* izenburupean bilduz, Antoni J. Colom irakasleak koordinaturiko liburua hartu da oinarri; zehazki 2002. urtean egin zen liburuaren bigarren argitalpena izan da euskaratu dena. Jatorrizko testuaren zailtasun mailari eutsiz itzuli nahi izan da euskarara Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hizkuntza Normalizaziorako Zerbitzuari esker, argitalpena ere Nafarroako Unibertsitate Publikoaren esku egonik.

Nabarmengarria da testuaren koordinaziogintzan aritu den Irene López-Goñi irakaslearen lana, bere kudeaketari esker posible egin baita, denbora epe oso laburrean, azken urte hauetan pedagogia ikasketetarako oinarritzotzat jo izan den materialea euskaraz ere eskura izatea. Izan ere, egun pedagogian zein hezkuntza zientzietan dauden interesguneetara hurbiltzeko ikaslea atarian jarriko duen gaztele-arzko oinarritzko testu gaurkotuaren hutsunea betetzera etorri da, maila handi batean, *Teorías e Instituciones contemporáneas de la educación* jatorrizko liburua. Zer esanik ez *Hezkuntzari buruzko teoriak eta erakunde garaikideak* izenburua daraman euskarazko liburuari dagokionez. Pedagogiako oinarritzko gaietan ez ezik hezkuntza esparruko zer-nolako gaietan euskarazko testugintzan dugun hutsune ikaragarria betetzen lagundu du zalantzarik gabe.

Lehenengoz dugu euskaraz hezkuntzaren teoria eta historiarako sarbide orokorra ematen duen unibertsitaterako eskuliburua. Eta hau, berez, azpimarratzekoa da. Bestalde, hezkuntza alorreko oinarritzko kontzeptuak, terminoak eta adierazpenak euskaraz bilduko dituen hiztegi berezirik oraindik egiteke dugula kontutan hartzen badugu, azpimarratzekoa ez ezik laudatzekoa ere bada ikasle eta irakasle eskaldun garenon probetxurako egin den gisa honetako testu mardula euskaratzen hartu duten lana.

Irene López-Goñi irakaslea izan da euskarazko argitalpena ausarki koordinatu duena eta, itzulpenaren ardua hartzeaz gain, oinarritzko testua euskal ikasleriara ego-

kitzen saiatu dena, gazteleraz ere aurki ditzakegun kapituluei Euskal Herriko hezkuntza esparruari loturiko hainbat gai txertatuz. Honenbestez, espainiar estatuan irakasleen prestakuntzan eta ikerkuntzan zeresan handia izan duten, eta duten, Antoni J. Colom, José L. Bernabeu, Emilia Dominguez eta Jaume Sarramona irakasle adituak ekarpenarekin batera, euskal irakaskuntzaren ikerkuntzan errekonozituak eta ikasgai honen lanketan urtetan trebatuak diren Euskal Herriko Unibertsitateko Paulí Dávila, Ana Eizagirre eta Idoia Fernandez irakasleak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irene López-Goñi irakasleak landutako atalak eskaintzen zaizkio ikasleari, oinarritzko bost ataletan banaturik dauden hogeita bi kapitulu bilduz liburu batean. Hala, eskuliburu mardul honek hezkuntzaren teoriak eta erakundeak “garaikidetasunaren” testuinguruan ez ezik Euskal Herriarenekoan ere argitasun eta zehaztasun osoz ezagutzeko eta lantzeko aukera ematen ditu.

Sumario, hitzaurre eta hizkuntza bakoitzeko argitalpenari dagokion sarreraren ondoren, eta eduki zehatzen lanketan sartu aurretik, atal bakoitzaren azalpen orokorra ematen zaigu asmoen aitortzea, bete nahi diren helburuak eta gaiaren nondik – norakoan berri emanez. Ondoren, kapitulu bakoitzari dagokion gaiaren lanketa dator. Egileak momentu oro saiaturen dira liburuaren abiapuntua dena, hots, ikaslea eta helburua dena, hezitzailea alegia, ez ahazten eta, zentzu horretan, gai bakoitza sistematikotasunez eta argitasunez, baina baita zorroztasun zientifikoz ere, azaltzen.

Kapitulu bakoitzarekin batera gaiari buruzko laburpena, ariketa batzuk (gaiaren aplikazio praktikorako erabilgarriak izan daitezkeenak) eta, gaiaren lanketa zehatzago eta sakonagorako orientabide egokia ematen duen bibliografia zaindua ageri dira. Ildo honetatik, azpimarragarria da gaiaren lanketan sakontzeko ikasleek irakaslearekin batera burutu ditzaketen ariketa posible batzuk proposatzen egileek eginiko lana. Izan ere, ariketa hauek tresna baliagarri suerta baitakizkio irakasleari bere ikasgelako ekintzan, ikasleek ezagutza objetiboki eskuratu eta, aldi berean kritika eta gogoetaren bitartez, jarrera eta iritzi pertsonalak eraiki ahal izateko behar duten laguntza emateko orduan. Liburuak kontsultatzen duen ikasleari, berriz, jasotako edukia aplikatzeko orduan izan ditzakeen aukerez eta zailtasunez ohartzeko bidea jartzen diote ariketa hauek. Liburu osoaren izaera baldintzatzen duen argitasunaren irizpideari jarraikiz, halaber, amaieran aurkituko du irakurleak kapitulu bakoitzean lantzen den gaiaren puntuz-puntuko azalpena, sumario gisa edo.

Lehenengo atala, “Hezkuntzari buruz”-koa, sarrera eginkizuna duen atala da, hots, irakurleak pedagogiaren munduan eta, horrenbestez, hezkuntzaren inguruko oinarritzko gaietan sarraraztekoa. Oinarritzko hiztegia eta liburuan zehar erabiliko diren funtsezko kontzeptuak argitzeaz gain, hezkuntzaren dimentsioak zeintzuk diren eta berauek ikertzen dituzten diziplinen esanahia zein den azalduko da “Hezkuntza eta hezkuntzaren dimentsioak” izenburua duen ataleko kapitulu bakarrean. Bigarren atala, “Hezkuntzaren teoriaren eboluzioa”-ri buruzkoa, liburuaren eta gaiaren atal garrantzitsu eta funtsezkoenetako bat da eta bertan hezkuntzaren teoriak, “garaikidetasun” kontzeptuak eskaintzen dituen aukera eta mugen artean, izan duten bilakaeraren berri ematen da. Hautuak hautu, Rousseauaren-gandik hasi eta gaurdaino hezkuntzaren kontzeptzioan ez ezik eskolako praktikan eraginik handiena izan duten korrante pedagogiko desberdinak –Eskola Berriaren mugimendua, Autoritatearen aurkako teoriak, Deseskolatzeari buruzkoak, teoria marxistak, teoria personalistak eta postmodernitateari dagozkionak– aurkezten dira zazpi kapituluetan behar bezala sistematizatuz.

Hirugarren ataleko aztergaia Hezkuntzaren Teoria da bere horretan. Bi kapituluetan aztertzen da, batetik, diziplina zientifiko gisa Hezkuntzaren Teoriak duen jatorria, esanahia eta Hezkuntza Zientzien artean betetzen duen papera. Eta, bestetik, egun

“hezkuntzaren paradigma” gisa ezagutzen diren hezkuntzaren teoriaren inguruko konzeptzio edo eredu desberdinak, hala nola, paradigma kritiko-hermeneutikoa eta paradigma teknologikoa.

Laugarren atala hezkuntzaren praktikan, “Hezkuntzaren jarduera”-n, zentratzen da, berau zehazten duten hainbat alderdi aztertuz. Bai hezitzailearengan, bere zeregin profesionaletan, eragiten duten aspektuak jorratuz, bai hezkuntza prozesua eta ekintza burutzeko garaian funtsezkoak diren komunikazio erlazioa bera, curriculum-a, edota aniztasunarekiko arreta landuz sarrarazi nahi da ikaslea hezkuntzaren praktikan.

Liburuaren eta dagokion ikasgaiaren beste oinarrizko helburua betetzera dator “Hezkuntza erakundeak” izenburua duen bosgarren eta azken atala. Zazpi kapituluren bueltan aztertzen dira XIX. mendean sortu eta gaur arteraino garatu izan diren hezkuntza erakunde publikoak: hezkuntza formalaz arduratu izan direnak, eskola adibide, eta baita hezkuntza ez-formalaren esparruan eragin izan dutenak, familia kasu. Eskola erakundeari dagokionez, espainiar estatuaren ikuspegitik azaltzen da, bi kapituluetan, XIX. mendetik hasi eta Hezkuntzako Lege Orokorra bitartean zein izan den hezkuntza erakundeen sorrera eta eboluzioa. Eta geroztik dituen erronka nagusien azterketa, parte-hartzearena eta indarkeriarena kasu. Sintesi esfortzu handiaz, azken hogeita hamar urte hauetan lege mailan izandako bilakaera marrazten da, oso modu sistematizatuan eta hainbat eskema eta grafiko lagungarriekin. Ondorengo bi kapituluetan, Euskal Herri mailan hezkuntzaren politika eta eskolaratzeak azken bi mendeetan zehar eraman duen ibilbidearen historia egiten da, eskolaratzeak alfabetatze prozesuekin izan duen loturan indarra nabarmenki jartzen delarik, eta euskal eskolaren bidean ikastolek izan duten ibilbide historikoa aztertzen da.

Segidan, familia erakundeak zein hezkuntza ez-formalean eragile gisa ikus dezakegun hainbat erakundek (udalak, alfabetatze erakundeak, zentro zibikoak, animazio sozio-kulturalekoak etab) duen hezkuntza-funtzioaren inguruko hausnarketan jarriko dute irakurlea ondorengo bi kapituluak. Bukatzeko, azken kapituluak Europar Batasunak zein bertatik sortutako erakundeek egungo eta etorkizuneko hezkuntzan dituen eta izan ditzakeen ondorio sozial, politiko eta lege mailakoan analisiaren atarian jarzen gaitu.

Liburua bere osotasunean hartuta, eta hala diote egileek, bere burua pedagogian murgildu edota irakasle egin nahi duen ikaslearentzat funtsezkoa da. Ikasle euskaldunarentzat, bereziki, ezinbestekoa da, diogu guk. Eskuliburu honek dakarrigun edukia oso da baliagarria hezkuntzaren teoria eta historiaren esparruan oinarritzkoa den ezagutza bereganatu nahi duen hezitzaile ororentzat bai irakasle izan nahi duen ikaslearentzat, baina baita ere gizarte hezkuntzaren esparruan lan egin nahi duen hezitzailearentzat, eskolako hezkuntzaren inguruan eraiki den ezagutza izan arren, bertatik ere gizarte esparru anitzetan hezkuntza ekintza egoki bideratzen lagun diezaiokeen ondorio aberasgarri ugari atera dezakeen heinean. Era berean, bertako hainbat kapituluren (bigarren eta bosgarren atalak batik bat) hastapenezko irakurketari probetxuzko etekina atera diezaiokete pedagogiako ikasketetan hezkuntzaren historian zein teorietan sakondu nahi duten irakasleek, ikasleek eta, oro har, hezitzaileek.

Iñaki Zabaleta Imaz